

Aurkibidea

Atarikoa	1
Sarrera.....	2
Indikatiboa	5
Baldintza	8
Ahalera	11
Subjuntiboa eta Agintera	12
Aditz trinkoak	13

Atarikoa

Esku artian daukazun lan hau Oñatiko Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegixak egindako lana oiñarri moduan hartuta Badihardugu Euskara Elkartiak martxan ipini daben proiektu baten parte da. 2005. urtian martxan hasitako proiektu honen asmua Deba ibarreko 17 herrixetako aditz-taulak osatu eta zabaltzia da.

Lantxo honetan aditz ezagun eta erabilixenak bakarrik batu nahi izan dittugu modu praktikoa eta labur bati danon eskura ipintzeko.

Ahoz gehixen entzuten diren formak jaso dittugun arren, hemen agertzen diren aditz-formak idazteko orduan erabiltzekuak dira, hau da, lan honetan gure herriko berbetan idazteko balioko doskun proposamena egin nahi izan dogu. Hau dala-ta, forma osuak idatzi dittugu. Horretarako, adizki batzuen formia eta egituria osatzeko, paradigmaren batasunari eta logikiari kasu egiñaz, euskera batuari begira lan egin

dogu; azken baten euskera bat dala erakutsi eta herrikua eta batuaren arteko zubi-lana egitteko asmoz sortu dogu-eta lan hau.

Aditz forma batzuetan parentesiak ikusiko dittuzue, horrek esan gura dau bi modutara esaten/entzuten dala aditz hori: parentesi barrukua be esanda edo esan barik. Beste batzuetan bi aditz-forma be ipini dittugu, forma bixak entzuten direlako berdin samar eta horregaittik bata zein bestia ontzat emon dittugu. Adizkixak kolore argixagua daukenian, ez direla oso erabilixak esan nahi dau.

Lan hau ikusi ondoren konturatzen bazara zure belarrirako ezezagunak diren formak agertzen direla edo zure inguruan beste modu baten esaten direla, gustora hartuko dittugu zure komentario, iritzi eta proposamen danak. Holaxe, ba. Nahi dozun arte!

□ Nola irakurri aditz taulak

naiz	→	Erabillera neutrua
naiz	→	Euskara batuko ordaiña
<i>nauk</i>	→	Hikako formia, gizonezkuendako
<i>naun</i>	→	Hikako formia, emakumiendako

□ Bergara aldeko aditzaren berezitasunak

Belaunaldi gazteoi nahastuta eta murriztuta heldu zaigu aditza, eta adineko jendeak askoz zuzenago eta aberatsago badarabil ere, berehala ikusten da murrizketa eta nahasketa aspalditxo heldu zela, gutxi erabiltzen diren aditz formetara batez ere, ahalezkora, subjuntibora edo NOR-NORiko 1. eta 2. pertsonetara, esate baterako. Kontuan izan behar da, gainera, batuko paradigmetan agertzen den forma asko eta askoren kideak beharbada ez direla hemen inoiz erabili izan.

Pentsa daitekeenez, ez da lan erraza herri-euskarako aditz-etaulak osatzea, irizpide dialektologikoak eta arau-emaileak uztartu nahi badira, batik bat.

Bergara-Antzuola inguruko aditzaren berezitasunetan sakondu nahi duenak jo beza Jone Larrañagaren Antzuolako hizkera liburura. Guk ere esku artean izan dugu ondorengo osatzerakoan.

1. Partizipioa eta aditz izena

Gaztelera-zko -ADO bukaerak Bergara aldean -AU eman du aditz berrietan: *pentsau, kantsau, kanbixau, altzau*. -IDO bukaerak, berriz, -IDU: *entretenu, mobidu, konsegidu*.

-KI batukoa Bergara aldean -GI egiteko joera dago: *ebagi, erabagi, esegi...* Baiña: *jaiki*.

-TA eransten da partizipioak egiteko: *apurtuta, jota, jarrirta...* -(R)IK ere entzun daiteke, baina ia bakarrik IZAN BIHAR atzean jarrirta. *Etorririk izan bihar dau./ Partidua galdurik izan bihar dabe.*

-TZEN erabiltzen da nagusiki aditz izenak osatzeko -AU, -TU, -DU, -I eta bestela bukatutako aditzetan: *emendatzen, ezagutzen, konpontzen, ibiltzen, jaikitzen, botatzen...* (*busten-bustitzen*, biak entzuten dira). Baina *joten* eta ez *jotzen*.

-TEN erabiltzen da -N-z bukatuetan: *esaten, jaten, egoten...* Baita -(T)SI, -TXI eta -(T)ZI-z bukatuetan ere: *egosten, erakusten, ixten, jazten...* Bestalde, ikusten da lehenago I-z bukatuetan -TEN aspektua orokor samarra zela: *ebalten, ipintzen, etortzen, ekartzen...* esaten dute oraindik adineko askok. Baina *igurtitzen* zein *igurtzen-igurtzen*.

-KETAN, Leintz eta Oñati aldean hain erabilia den atzizkia hitz banaka batzuekin esaten da bakarrik: *Aitta goldaketan dabil./ Saraketan emon giñuan eguna./ Illaran jarrirta laixaketan egitten giñuan./ Mormoxetan ibili die goiz guztia*. Substantiboetara lotuta beti, ikusten denez.

-KO da gertakizuneko aspektua: *pentsauko, ibiliko, beteko...* Baina -GO -N eta -I-z bukatuetan: *jango, hilgo, esango...*

2. Pluralgileak

Antzuolan eta Bergara gehienez ez da pluralgilerik erabiltzen NORI duten aditzetan: *Zapatia galdu jako/ Zapatak galdu jako. Intxaurra emon dosta/ Intxaurrak emon dosta*. Angiozar eta Uberan, ostera, -Z jartzen da atzean: *Zapatak galdu jakoz./ Intxaurrak emon dostaz*.

-IT da NOR-NORK-eko pluralgilea, batuan bezala: *prakak erosi dittut./ Kalian ikusi zaittut*.

-Z da EUKIrena, batuan bezala: *dauzkat, neuzkan*. Baina baita JAKIN eta EKARRI aditzena ere: *dazkit, dazkigu, dazkat, dazkagu*. Euskal Herriko leku gutxitan gertatzen den gauza eta oso adinekoen ahoetan baka-rrik gordetzen dena. Ubera eta Angiozarren bukaeran doa pluralgilea: *dakidaz, daukadaz*

3. Beste berezitasun batzuk

EBAN/ZEBAN: Iraganaldiko 3. pertsona bietara entzuten da: eban/zeban, etorren/zetorren, otsan/zotsan. Nagusiengan lehena oso arrunta bada ere, Z-dun formak nagusitzen ari dira. Forma batzuk beti entzun dira Z-rekin: *zan, zittuan, ziharduan...*

JAT/DOTSAT: Bi aditz laguntzaile mota erabiltzen dira NOR-NORI-NORK-en: *gizurra esan jat/ gizurra esan dotsat*. Antzuolan eta Bergaran JAT formak dira nagusi (Oñatin XAT), Ubera eta Angiozarren, berriz, DOT-SAT. (Ik. taulak). Jende askok bata zein bestea darabil.

NOTSAKE/NOSKIO: goikoaren antzeko bikoiztasuna gertatzen da. (Ik. taulak).

-GIÑAN: asko entzuten da egiten zentzuan: *kaka(g)iñan, txixa(giñan, bidegiñan, esolagiñan...*

-KIN: ZEINEKIN edo ZEREKIN *pentsau, sinistu, enamorau, konfiau, ahaztu, poztu...* esaten da eta ez ZEI-NENGAN edo ZERTAZ.

4. Jokaera berezia duten aditzak

NOR-NORI

Ondorengo aditzek jokaera hau dute, nahiz eta batzuk NOR edo NOR-NORK bezala ere joka daitezkeen.

Akordau, ahaztu: *Etxat akordau periodikua hartzia./ Zure izena ahaztu jat*.

Pentsau, hasarretu, amorratu, entendidu, begittandu, garbatu, damutu...: *Gaizki pentsatzen jat esan dozu-na./ Hasarretu jakon eta platerak lurrera botatzen hasi zan./ Aittajaunak ezotsan saririk emon, amorratu jakon eta txistua bota zotsan./ Hari asko entenditzen jako zezenen gaiñian./ Triste zeuala begittandu jatan./ Segi hola eta egunen baten garbatuko (edo damutuko) jatzu. Baina: Nik desberdin pentsatzen dot./ Nerekin hasarretu (edo amorratu) da./ Damutuko zate... ere bai.*

Izena: *Zela jatzu izena?/ Amai Klementa jako izena. Baina: Zela dozu (edo daukazu) izena ere bai.*

Urriak egin, bete, kunplidu: *Neri egitten jat 87 urte eta Joxepari egitten jako 63. Baina: 87 urte egin dittu (edo bete edo kunplidu ere bai).*

NORK (NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK)

Urten eta igo (edo ixo): *Berandu urten dot etxetik./ Txakurrak urten dost bidera./ Urbixara igo giñuan.*

Baina gaur egun NOR jokaeraz ere entzuten dira: *Jertse barik urten naiz./ Besua urten jat./ Etxera ixo naiz.*

Bihar (behar): NOR-dun aditzekin doanean ere bai: *Bihar ez dot Donostiara joan bihar*. Hau da erabilera zaharra, nahiz eta *Donostiara joan bihar naiz* ere arrunta den gaur egun.

Ezin, ostera, ondoko aditzaren arabera jokatzeko da: *Bihar ezin naiz etorri./ Ezin dozu ardaurik eran.*

Autsi, eutsi aditzaren agintera trinkoa entzun daiteke. Zuka: *autsi* (har ezazu hau). Hika gizona: *autsa* (har ezak hau). Hika emakumea: *autson* (har ezan hau). Hika plurala, gizona: *autsaz*. Hika plurala, emakumea: *autsonaz*.

NOR-NORI-NORK

Lagundu, itxoin, jarraitu, segi(du), begiratu: *Etxeraiño lagundu zostan./ Plazan itxoingo dotsut./ Atzetik jarraitu doste./ Arpegira begiratu dost.*

Iritzi: *Gaizki iritzi notsan zuk esandakua(i)./ Zer irizten dotsazue (edo jatzue) plaza barrixa(i)? Oso galdua. Deizkion forma trinkoa ere entzuten da: Berak deizkionian basora joan eta iñon arbolak botatzen zittuan.*

Ekin, laga, jaraiñ: *Goguakin ekin dotsa kurso barrixai./ Lanai laga eta etxera etorri zan./ Txakurrai jarainxozu.*

Eragin: *Pedalei gogor eragin./ Asko eragin dotsa andrian akzidentiak.*

5.Aditz trinkoak

Egon, ibili, joan, etorri, jakin, eruan, ekarri, euki, erabili, jardun eta **esan**-ek (diño...) jokaera trinkoa ere badute (Ikus taulak). **Jardun** aditza bizi-bizirik dago eskualdean, Euskal Herriko leku gehienetan ez bezala.

Dirudi, deizkion, darixola, autsi... bezalako adizki trinko bakartuak ere entzuten dira. Noizbait erabilitako adizkeren azken arrastoak dirudite.

6.Hiketa

Hitanoa bizi-bizirik dago, herri txiki eta auzoetan batez ere. Bergarako kalean adineko askok egiten du eta gazteak ere gero eta gehiago ahalegintzen dira.

Hitano alokutiboan J- erabiltzen da aditz hasieran, orainaldian: *juat, jonat, jakixat, jaukan...* EZ aurretik duenean, -TX bihurtzen da: *etxuat, etxonat, etxakixat, etxaukan...*

Menpeko perpausekin ez da forma alokutiborik erabiltzen: *Etxuat uste etorriko danik./ Denpora ona egingo dabela esan jok Pellok./ Preguntaixok noiz datorren.*

Erabilera hau aldrebestu egin da aspaldian, gazteen ahotan batez ere, eta horrelako esaldi okerrak entzuten dira: *Etxuat uste etorriko dokenik./ Denpora ona egingo jokela esan jok Pellok./ Preguntaixok noiz jatoken.* Hitanozko forma alokutiboek ez dute -LA, -N, -LAKO edo gisako atzizki menperatzailerik onartzen. Zuzentzen saiatzea merezi duen arazoa da.

Menpeko aditza hi pertsonakoa denean, ostera, jar dakiok atzizkia aditzari: *Esan jok heuk daukakela giltzia./ Pentsatzen jonat hi gizurretan habilela nerekin./ Emoten jon sekula eztonala gizonik ikusi.*

Baldintzan bada alokutiborik? Gramatikariek ezetz diote. Adinekoen berbetari erreparatzen badiogu konturatu gara zenbat eta zaharragoa eta hiztun hobea izan, orduan eta gutxiago erabiltzen dutela alokutiboa baldintzan. *Nik hori jakin izan baneu enintzuan joango./ Haura nor balitz etzuan huskerixa horregatik hasarretuko.* Edozein modutan, gaur egun jende gehienak darabil alokutiboa baldintzako forma gehienetan eta ontzat eman beharko dira honelako esaldiak ere: *Nik hori jakin izan banejok enintzuan joango./ Haura nor balitzok etzuan huskerixa horregatik hasarretuko.*

Berorika ere egiten zen sasoi baten jende inportantearekin, abadearekin, abokatuarekin edo medikuarrekin, adibidez. *Jango dau hamarretakotxo bat berorrek?/ Noiz etorriko da beroi ama konfesatzera?* Hirugarren pertsonako aditza erabiltzen da. Menpetasuna adierazten du trataera honek eta gaur egun ez da erabiltzen, adar-soinuan edo aspaldiko kontuak esaterakoan ez bada.

Bergara, Debaerdikoa

NOR / Indikatiboa

	ORAINA	LEHENA
NI	naiz naiz <i>nok</i> <i>non</i>	nintzan nintzen <i>nintzuan</i> <i>nintzonan</i>
HI (g)	haiz haiz	hintzan hintzen
HI (e)	haiz haiz	hintzanan hintzen
HAURA	da da <i>dok</i> <i>don</i>	zan zen <i>zuan</i> <i>zonan</i>
GU	gara gara <i>gaittuk</i> <i>gaittun</i>	giñan ginen <i>giñuztan</i> <i>giñuztanan</i>
ZU	zara zara	ziñan zinen
ZUEK	zarete zarete	ziñaten zineten
HAREK	dira dira <i>dittuk</i> <i>dittun</i>	ziren ziren <i>zittuan</i> <i>zittunan</i>

NOR-NORI / Indikatiboa - Oraina

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
HAURA	jat zait <i>jatak</i> <i>jatan</i>	jak zaik	jan zain	jako zaio <i>jakok</i> <i>jakon</i>	jaku zaigu <i>jakuk</i> <i>jakun</i>	jatzu zaizu	jatzue zaizue	jakue zaie <i>jakuek</i> <i>jakone</i>
HAREK	jat zaizkit <i>jatak</i> <i>jatan</i>	jak zaizkik	jan zaizkin	jako zaizkio <i>jakok</i> <i>jakon</i>	jaku zaizkigu <i>jakuk</i> <i>jakun</i>	jatzu zaizkizu	jatzue zaizkizue	jakue zaizkie <i>jakuek</i> <i>jakone</i>

NOR-NORI / Indikatiboa - Lehena

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
HAURA	jatan zitaidan <i>jatan</i> <i>jatanan</i>	jaken zitzaian	janan zitzaian	jakon zitzaion <i>jakuan</i> <i>jakonan</i>	jakun zitzaigun <i>jakuan</i> <i>jakunan</i>	jatzun zitzaizun	jatzuen zitzaizuen	jakuen zitzaien <i>jakuen</i> <i>jakonen</i>
HAREK	jatan zitzaizkidan <i>jatan</i> <i>jatanan</i>	jaken zitzaizkian	janan zitzaizkinan	jakon zitzaizkion <i>jakuan</i> <i>jakonan</i>	jakun zitzaizkigun <i>jakuan</i> <i>jakunan</i>	jatzun zitzaizkizun	jatzuen zitzaizkizuen	jakuen zitzaizkien <i>jakuen</i> <i>jakonen</i>

Aditz forma berberak erabiltzen dira singularrian eta pluralian: *bidian otsua(k) agertu jat/jatan*

NOR-NORK / Indikatiboa - Oraina

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREK
NI		nok <i>nauk</i>	non <i>naun</i>	nau <i>nau najok najon</i>		nazu <i>nauzu</i>	nazue <i>nauzue</i>	nabe <i>naute najuek najone</i>
HI (g)	haut <i>haut</i>			hau <i>hau</i>	haugu <i>haugu</i>			habe <i>haute</i>
HI (e)	haut <i>haut</i>			hau <i>hau</i>	haugu <i>haugu</i>			habe <i>haute</i>
HAURA	dot <i>dut juat jonat</i>	dok <i>duk</i>	don <i>dun</i>	dau <i>du jok jon</i>	dogu <i>dugu juau jonau</i>	dozu <i>duzu</i>	dozue <i>duzue</i>	dabe <i>dute juek jone</i>
GU		gaittuk <i>gaituk</i>	gaittun <i>gaitun</i>	gaittu <i>gaitu gaittuk gaittun</i>		gaittuzu <i>gaituzu</i>	gaittuzue <i>gaituzue</i>	gaittue <i>gaituzte gaittuek gaittune</i>
ZU	zaittut <i>zaitut</i>			zaittu <i>zaitu</i>	zaittugu <i>zaitugu</i>			zaittue <i>zaituzte</i>
ZUEK	zaittuet <i>zaituztet</i>			zaittue <i>zaituzte</i>	zaittuegu <i>zaituztegu</i>			zaittue <i>zaituztete</i>
HAREK	dittut <i>naute jittuat jittunat</i>	dittuk <i>dituk</i>	dittun <i>ditun</i>	dittu <i>ditu jittuk jittun</i>	dittugu <i>ditugu jittuau jittunau</i>	dittuzu <i>dituzu</i>	dittuzue <i>dituzue</i>	dittue <i>dituzte jittuek jittune</i>

NOR-NORK / Indikatiboa - Lehena

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREK
NI		ninduan <i>ninduan</i>	nindunan <i>nindunan</i>	ninduan <i>ninduen ninduan nindunan</i>		ninduzun <i>ninduzun</i>	ninduzuen <i>ninduzuen</i>	ninduen <i>ninduten ninduen nindunen</i>
HI (g)	hindudan <i>hindudan</i>			hinduan <i>hinduen</i>	hindugun <i>hindugun</i>			hinduen <i>hinduten</i>
HI (e)	hindunan <i>hindudan</i>			hindunan <i>hinduen</i>	hindugunan <i>hindugun</i>			hindunen <i>hinduten</i>
HAURA	neban <i>nuen najuan najanon</i>	heban <i>huen</i>	heban <i>huen</i>	zeban <i>zuen juan jonan</i>	giñuan <i>genuen giñuan giñunan</i>	ziñuan <i>zenuen</i>	ziñuen <i>zenuten</i>	zeben <i>zuten juen jonen</i>
GU		giñuztan <i>gintuan</i>	giñuztan <i>gintunan</i>	giñuzen <i>gintuen giñuztan giñuztan</i>		giñuzun <i>gintuzun</i>	giñuzuen <i>gintuzuen</i>	giñuzten <i>gintuzten giñuzten giñuztenan</i>
ZU	ziñuztan <i>zintudan</i>			ziñuzen <i>zintuen</i>	ziñuztagun <i>zintugun</i>			ziñuzten <i>zintuzten</i>
ZUEK	ziñuzten <i>zintuztedan</i>			ziñuzten <i>zintuzten</i>	ziñuztegun <i>zintuztegun</i>			ziñuzten <i>zintuzteten</i>
HAREK	nittuan <i>nituen najittuan najittunan</i>	hittuan <i>hituen</i>	hittunan <i>hituen</i>	zittuan <i>zituen jittuan jittunan</i>	giñuzen <i>genituen giñuztan giñuztan</i>	ziñuzen <i>zenituen</i>	ziñuzten <i>zenituzten</i>	zittuen <i>zituzten jittuen jittunen</i>

NOR-NORI-NORK / Indikatiboa - Oraina (singularra eta plurala)

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK		dostat <i>diat</i>	dostanat <i>dinat</i>	jat/dotsat <i>djot jotsat jotsanat</i>		dotsut <i>dizut</i>	dotsuet <i>dizuet</i>	jet/dotset <i>diet jotset jotsenet</i>
HIK (g)	dostak <i>didak</i>			jak/dotsak <i>diok</i>	doskuk <i>diguk</i>			jek/dotsek <i>diek</i>
HIK (e)	dostan <i>didan</i>			jan/dotsan <i>dion</i>	doskun <i>digun</i>			jen/dotsen <i>dien</i>
HAREK	dost <i>dit jostak jostan</i>	dosk <i>dik</i>	don <i>din</i>	jao/dotsa <i>djo jotsak jotsan</i>	dosku <i>digu jokuk jokun</i>	dotsu <i>dizu</i>	dotsue <i>dizue</i>	jaue/dotse <i>die jotsek jotsen</i>
GUK		dostagu <i>diagu</i>	dostanagu <i>dinagu</i>	jau/dotsagu <i>djogu jotsagu jotsanagu</i>		dotsugu <i>dizugu</i>	dotsuegu <i>dizuegu</i>	jeu/dotsegu <i>diegu jotsegu jotsenagu</i>
ZUK	dostazu <i>didazu</i>		jatzu/dotsazu	doskuzu <i>diozu</i>	diguzu			jetzu/dotsezu <i>diezu</i>
ZUEK	dostazue <i>didazue</i>			jatzue/dotsazue <i>diozue</i>	doskuzue <i>diguzue</i>			jetzue/dotsezue <i>diezue</i>
HAREK	doste <i>didate jostek jostane</i>	doske <i>diate</i>	dostane <i>dinate</i>	jaue/dotse <i>djote jotsek jotsane</i>	doskue <i>digute jokuek jokune</i>	dotsue <i>dizute</i>	dotsue <i>dizute</i>	jaue/dotse <i>diete jotsek jotsene</i>

Aditz-forma berberak erabiltzen dira singularrian eta pluralian: *harek neri sagarra(k) emon dost/zostan.*

NOR-NORI-NORK / Indikatiboa - Lehena (singularra eta plurala)

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK		nostan <i>nian</i>	nostanan <i>ninan</i>	notsan <i>nion najotsan najotsanan</i>		notsun <i>nizun</i>	notsuen <i>nizuen</i>	notsen <i>nien najotsen najotsenen</i>
HIK (g)	hostan <i>hidan</i>			hotsan <i>hion</i>	hoskun <i>higun</i>			hotsen <i>hien</i>
HIK (e)	hostanan <i>hidan</i>			hotsanan <i>hion</i>	hoskunan <i>higun</i>			hotsanen <i>hien</i>
HAREK	zostan <i>zidan jostan jostanan</i>	hostan <i>zian</i>	hostanan <i>zinan</i>	zotsan <i>zion jotsan jotsanan</i>	zoskun <i>zigun jokuan jokunan</i>	zotsun <i>zizun</i>	zotsuen <i>zizuen</i>	zotsen <i>zien jotsen jotsanen</i>
GUK		gonstan <i>genian</i>	gonstanan <i>geninan</i>	gotsan <i>genion gotsan gotsanan</i>		gotsun <i>genizun</i>	gotsuen <i>genizuen</i>	gotsen <i>genien gotsen gotsanen</i>
ZUK	zostazun <i>zenidan</i>			zotsan <i>zenion</i>	zotskuzun <i>zenigun</i>			zotsen <i>zenien</i>
ZUEK	zostazuen <i>zenidaten</i>			zotsen <i>zenioten</i>	zotskuzuen <i>zeniguten</i>			zotsen <i>zenieten</i>
HAREK	zosten <i>zidaten josten jostanen</i>	hosten <i>ziaten</i>	hostanen <i>zinate</i>	zotsen <i>zioten jotsen jotsanen</i>	zotskuen <i>ziguten jokuen jokunen</i>	zotsuen <i>zizuten</i>	zotsuen <i>zizuten</i>	zotsen <i>zieten jotsen jotsenen</i>

NOR / Baldintza eta Ondorioa

	BALDINTZA	ONDORIOA
NI	banintz <i>banintz banintzok banintzon</i>	nintzake <i>nintzateke nintzakek nintzaken</i>
HI (g)	bahintza <i>bahintz</i>	hintzake <i>hintzateke</i>
HI (e)	bahintza <i>bahintz</i>	hintzake <i>hintzateke</i>
HAURA	balitz <i>balitz balitzok balitzon</i>	litzake <i>litzateke litzakek litzaken</i>
GU	bagiña <i>bagina bagiña bagiña</i>	giñake <i>ginateke giñakek giñaken</i>
ZU	baziña <i>bazina</i>	ziñake <i>zinateke</i>
ZUEK	baziñate <i>bazinete</i>	ziñakie <i>zinatekete</i>
HAREK	balira <i>balira balira balira</i>	lirake <i>lirateke lirakek liraken</i>

NOR-NORI / Baldintza

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HARERI
HAURA	balitzat <i>balitzait balitzatak balitzatan</i>	balitzak <i>balitzaik</i>	balitzan <i>balitzain</i>	balitzako <i>balitzαιο balitzakok balitzakon</i>	balitzaku <i>balitzaidu balitzakuk balitzakun</i>	balitzazu <i>balitzazu</i>	balitzazue <i>balitzazu</i>	balitzakue <i>balitzae balitzakuek balitzakone</i>
HAREK	balitzat <i>balitzait balitzatak balitzatan</i>	balitzak <i>balitzaik</i>	balitzan <i>balitzain</i>	balitzako <i>balitzaikio balitzakok balitzakon</i>	balitzaku <i>balitzaikigu balitzakuk balitzakun</i>	balitzazu <i>balitzaikizu</i>	balitzazue <i>balitzaikizue</i>	balitzakue <i>balitzaikie balitzakuek balitzakone</i>

Honek adizkixok be erabiltzen dira: *balejat, balejak, balejan, balejako, balejaku, balejatzu, balejatzue, balejakue*. Eta berdin pluralian.

NOR-NORI / Ondorioa

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HAREI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
HAURA	litzatake <i>litzaidake litzatakek litzataken</i>	litzakik <i>litzaiake</i>	litzakin <i>litzainake</i>	litzakio <i>litzaioke litzakiok litzakion</i>	litzakigu <i>litzaugike litzakiguk litzakigun</i>	litzakizu <i>litzazu</i>	litzakizue <i>litzazueke</i>	litzakie <i>litzaeke litzakiek litzakien</i>
HAREK	litzatake <i>litzaidake litzatakek litzataken</i>	litzakik <i>litzaikie</i>	litzakin <i>litzakinake</i>	litzakio <i>litzaikioke litzakiok litzakion</i>	litzakigu <i>litzaikiguke litzakiguk litzakigun</i>	litzakizu <i>litzaikizuke</i>	litzakizue <i>litzaikizueke</i>	litzakie <i>litzaikieke litzakiek litzakien</i>

Beste honek be erabiltzen dira: *lejatake, lejakek, lejaken, lejako, lejaku, lejatzu, lejatzue, lejakue*. Eta berdin pluralian.

NOR-NORK / Baldintza

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREK
NI		baninduk <i>baninduk</i>	banindun <i>banindun</i>	banindu <i>banindu</i>		baninduzu <i>baninduzu</i>	baninduzue <i>baninduzue</i>	banindue <i>banindue</i>
HI (g)	bahindut <i>bahindut</i>			bahindu <i>bahindu</i>	bahindugu <i>bahindugu</i>			bahindue <i>bahindue</i>
HI (e)	bahindut <i>bahindut</i>			bahindu <i>bahindu</i>	bahindugu <i>bahindugu</i>			bahindue <i>bahindue</i>
HAURA	baneu <i>banu</i> <i>banejok</i> <i>banejon</i>	baheu <i>bahu</i>	baheu(n) <i>bahu</i>	baleu <i>balu</i> <i>balejok</i> <i>balejon</i>	bagiñu <i>bagenu</i>	baziñu <i>bazenu</i>	baziñue <i>bazenute</i>	balebe <i>balute</i> <i>balejuek</i> <i>balejone</i>
GU		bagiñuzek <i>bagintuk</i>	bagiñuzen <i>bagintun</i>	bagiñuz <i>bagintu</i>		bagiñuzu <i>bagintuzu</i>	bagiñuzue <i>bagintuzue</i>	bagiñuzte <i>bagintuzte</i>
ZU	baziñuzt <i>bazintut</i>			baziñuz <i>bazintu</i>	baziñuztagu <i>bazintugu</i>			baziñuzte <i>bazintuzte</i>
ZUEK	baziñuztet <i>bazintuztet</i>			baziñuzte <i>bazintuzte</i>	baziñuztegu <i>bazintuztegu</i>			baziñuzte <i>bazintuztete</i>
HAREK	banittu <i>banitu</i> <i>banejittuk</i> <i>banejittun</i>	bahittu <i>bahitu</i>	bahittu <i>bahitu</i>	balittu <i>balitu</i> <i>balejittuk</i> <i>balejittun</i>	bagiñuz <i>bagenitu</i> <i>bagiñuzek</i> <i>bagiñuzen</i>	baziñuz <i>bazenitu</i>	baziñuzte <i>bazenituzte</i>	balittue <i>balituzte</i> <i>balejittuek</i> <i>balejittune</i>

NOR-NORK / Ondorioa

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HAREK
NI		nindukek <i>nindukek</i>	ninduken <i>ninduken</i>	ninduke <i>ninduke</i> <i>nindukek</i> <i>ninduken</i>		ninduzuke <i>nindukezu</i>	ninduzukie <i>nindukezue</i>	nindukie <i>nindukete</i> <i>nindukiek</i> <i>nindukene</i>
HI (g)	hinduket <i>hinduket</i>			hinduke <i>hinduke</i>	hindukegu <i>hindukegu</i>			hindukie <i>hindukete</i>
HI (e)	hinduket <i>hinduket</i>			hinduke <i>hinduke</i>	hindukegu <i>hindukegu</i>			hindukene <i>hindukete</i>
HAURA	neuke <i>nuke</i>	heuke <i>huke</i>	heuke <i>huke</i>	leuke <i>luke</i> <i>leukek</i> <i>leuken</i>	giñuke <i>genuke</i> <i>giñukek</i> <i>giñuken</i>	ziñuke <i>zenuke</i>	ziñukie <i>zenukete</i>	leukie <i>lukete</i> <i>leukiek</i> <i>leukene</i>
GU		giñuzkek <i>gintuzkek</i>	giñuzken <i>gintuzken</i>	giñuzke <i>gintuzke</i> <i>giñuzkek</i> <i>giñuzken</i>		giñuzuke <i>gintuzkezu</i>	giñuzukie <i>gintuzkezue</i>	giñuzkie <i>gintuzkete</i> <i>giñuzkiek</i> <i>giñuzkene</i>
ZU	ziñuzket <i>zintuzket</i>			ziñuzke <i>zintuzke</i>	ziñuzkegu <i>zintuzkegu</i>			ziñuzkie <i>zintuzkete</i>
ZUEK	ziñuzkiet <i>zintuzketet</i>			ziñuzkie <i>zintuzkete</i>	ziñuzkegu <i>zintuzketegu</i>			ziñuzkie <i>zintuzketete</i>
HAREK	nittuzke <i>nituzke</i> <i>nittuzkek</i> <i>nittuzken</i>	hittuzke <i>hituzke</i>	hittuzke <i>hituzke</i>	littuzke <i>lituzke</i> <i>littuzkek</i> <i>littuzken</i>	giñuzke <i>genituzke</i> <i>giñuzkek</i> <i>giñuzken</i>	ziñuzke <i>zenituzke</i>	ziñuzkie <i>zenituzkete</i>	littuzkie <i>lituzkete</i> <i>littuzkiek</i> <i>littuzkene</i>

NOR-NORI-NORK / Baldintza (singularra eta plurala)

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK		banosta <i>banik</i>	banosta <i>banin</i>	banotsa <i>banio</i> <i>banotsa</i> <i>banotsa</i>		banotsu <i>banizu</i>	banotsue <i>banizue</i>	banotse <i>banie</i> <i>banotse</i> <i>banotse</i>
HIK (g)	bahosta <i>bahit</i>			bahotsa <i>bahio</i>	bahosku <i>bahigu</i>			bahotse <i>bahie</i>
HIK (e)	bahosta <i>bahit</i>			bahotsa <i>bahio</i>	bahoskun <i>bahigu</i>			bahotse <i>bahie</i>
HAREK	balosta <i>balit</i> <i>balejost</i> <i>balejostan</i>	balosk <i>balik</i>	balostan <i>balin</i>	balotsa <i>balio</i> <i>balejotsak</i> <i>balejotsan</i>	balosku <i>baligu</i> <i>baloskuk</i> <i>baloskun</i>	balotsu <i>balizu</i>	balotsue <i>balizue</i>	balotse <i>balie</i> <i>balejotsek</i> <i>balejotsen</i>
GUK		bagonsta <i>bagenik</i>	bagonsta <i>bagein</i>	bagotsa <i>bagenio</i> <i>bagotsa</i> <i>bagotsa</i>		bagotsu <i>bageinzu</i>	bagotsue <i>bageinuzue</i>	bagontse <i>bageinie</i> <i>bagontsek</i> <i>bagontsen</i>
ZUK	bazonsta <i>bazenit</i>			bazotsa <i>bazenio</i>	baloskuzu <i>bazenigu</i>			bazontse <i>bazenie</i>
ZUEK	bazonste <i>bazenidate</i>			bazontse <i>bazeniote</i>	baloskuzue <i>bazenigute</i>			bazontse <i>bazeniete</i>
HAREK	baloste <i>balidate</i> <i>balejostek</i> <i>balejosten</i>	baloske <i>baliate</i>	baloskene <i>balinate</i>	balotse <i>balio</i> <i>balejotsek</i> <i>balejotsen</i>	baloskue <i>baligute</i> <i>baloskuek</i> <i>baloskune</i>	balotsue <i>balizute</i>	balotsue <i>balizute</i>	balotse <i>baliete</i> <i>balejotsek</i> <i>balejotsen</i>

NOR-NORI-NORK / Ondorioa (singularra eta plurala)

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK		nostakek <i>niake</i>	nostaken <i>ninake</i>	notsake/noskio <i>niok</i> <i>notsakek/noskiok</i> <i>notsaken/noskion</i>		notsuke <i>nizuke</i>	notsueke <i>nizueke</i>	notseke/noskie <i>nieke</i> <i>notsekek/noskiek</i> <i>notseken/noskien</i>
HIK (g)	hostake <i>hidake</i>			hotsake/hoskio <i>hiok</i>	hoskuke <i>higuke</i>			hotseke/hoskie <i>hieke</i>
HIK (e)	hostaken <i>hidake</i>			hotsake/hoskio <i>hiok</i>	hoskuke <i>higuke</i>			hotseke/hoskie <i>hieke</i>
HAREK	lostake <i>lidake</i> <i>lostakek</i> <i>lostaken</i>	lostake <i>liake</i>	lostaken <i>linake</i>	lotsake/loskie <i>liok</i> <i>lotsakek/loskiok</i> <i>lotsaken/loskion</i>	loskuke <i>liguke</i> <i>loskuek</i> <i>loskuken</i>	lotsuke <i>lizuke</i>	lotsueke <i>lizueke</i>	lotseke/loskie <i>lieke</i> <i>otsekek/loskiek</i> <i>lotseken/loskien</i>
GUK		gonstake <i>geniake</i>	gonstaken <i>geninake</i>	gontsake/gonskio <i>geniok</i> <i>gontsakek/gonskiok</i> <i>gontsaken/gonskion</i>		gontsuke <i>genizuke</i>	gontsueke <i>genizueke</i>	gontseke/gonskie <i>genieke</i> <i>gontsekek/gonskiek</i> <i>gontseken/gonskien</i>
ZUK	zontake <i>zenidake</i>			zontsake/zonskio <i>zeniok</i>	loskuzuke <i>zeniguke</i>			zontseke/zonskie <i>zenieke</i>
ZUEK	zontakie <i>zenidakete</i>			zontsakie/zonskie <i>zeniakete</i>	loskuzueke <i>zenigukete</i>			zontseke/zonskie <i>zeniekete</i>
HAREK	losteke <i>lidakete</i> <i>lostek</i> <i>losteken</i>	losteke <i>liakete</i>	losteken <i>linakete</i>	lotseke/loskie <i>liokete</i> <i>lotsekek/loskiek</i> <i>otseken/loskien</i>	loskueke <i>ligukete</i> <i>loskuekek</i> <i>loskueken</i>	lotsueke <i>lizukete</i>	lotsueke <i>lizuekete</i>	lotseke/loskie <i>liekete</i> <i>lotsekek/loskiek</i> <i>lotseken/loskien</i>

NOR / Ahalera

	ORAINA / HIPOTETIKOA	LEHENA
NI	neike naiteke neikek neiken	neikien nintekeen neikian neikenan
HI (g)	heike haiteke	heikian hintekeen
HI (e)	heike haiteke	heikenan hintekeen
HAURA	leike daiteke leikek leiken	zeikien zitekeen jeikian jeikenan
GU	geinke gaitezke geinkek geinken	geinkie gintezkeen geinkian geikenan
ZU	zeinke zaitezke	zeikien zintezkeen
ZUEK	zeinkie zaitezket	zeikien zintezketen
HAREK	leizke daitezke leizkek leizken	zeizkien zitezkeen jeizkian jeizkenan

NOR-NORK / Ahalera

	ORAINA / HIPOTETIKOA	LEHENA
NIK	neike/daike dezaket/nezake neikek/jeikiat neiken/jeikenat	neiken nezakeen neikian neikenan
HIK (g)	heike/daike dezakek/hezake	heikian hezakeen
HIK (e)	heike/daiken dezaken/hezake	heikenan hezakeen
HAREK	leike/daike dezake/lezake leikek/jeikek leiken/jeiken	zeiken zezakeen jeikian jeikenan
GUK	geinke/daikegu dezakegu/genezake geinkek/jeikiau geinken/jeikenau	geinken genezakeen geinkian geikenan
ZUK	zeinke/daikezu dezakezu/zenezake	zeinken zenezakeen
ZUEK	zeinkie/daikezue dezakezue/zenezakete	zeikien zenezaket
HAREK	leikie/daikie dezakete/lezakete leikiek/jeikiek leikene/jeikene	zeikien zezaket

NOR-NORI-NORK / Ahalera

		ORAINA / HIPOTETIKOA	LEHENA
NIK	HARI	neikixo diezaioket/niezaioke	neikixon niezaiokeen
HIK	HARI	heikixo diezaioket-n/hiezaioke	heikixon hiezaiokeen
HAREK	HARI	leikixo diezaioke/liezaioke	zeikixon ziezaiokeen
GUK	HARI	geinkixo diezaiokegu/geniezaioke	geinkixon geniezaiokeen
ZUK	HARI	zeinkixo diezaiokezu/zenezaioke	zeinkixon zenezaiokeen
ZUEK	HARI	zeinkixue diezaiokezue/zenezaiokete	zeinkixuen zenezaioketen
HAREK	HARI	leikixue diezaiokete/liezaiokete	zeikixuen ziezaioketen

NOR-NORI / Ahalera

		ORAINA / HIPOTETIKOA	LEHENA
NI	HARI	neikixo nakioket/nenkiokete	neikixon nenkioketeen
HI	HARI	heikixo hakioket/henkiokete	heikixon henkioketeen
HAURA	HARI	leikixo dakioket/lekiokete	zeikixon zekioketeen
GU	HARI	geinkixo gakizkioket/genkizkiokete	geinkixon genkizkioketeen
ZU	HARI	zeinkixo zakizkioket/zenkizkiokete	zeinkixon zenkizkioketeen
ZUEK	HARI	zeinkixue zakizkiokete/zenkizkiokete	zeinkixuen zenkizkioketen
HAREK	HARI	leikixue dakiokete/lekiokete	zeikixuen zekizkioketeen

NOR / Subjuntiboa

NI	na(d)in <i>nadin</i>	ne(d)in <i>nendin</i>
HI	ha(d)in <i>hadin</i>	he(d)in <i>hendin</i>
HAURA	da(d)in <i>dadin</i>	ze(d)in <i>zedin</i>
GU	gaittezen <i>gaitezen</i>	ginttezen <i>gintezzen</i>
ZU	zaittezen <i>zaitezen</i>	zinttezen <i>zintezzen</i>
ZUEK	zaittezen <i>zaitezten</i>	zinttezen <i>zintezten</i>
HAREK	daittezen <i>daitezzen</i>	zittezen <i>zitezzen</i>

NOR-NORI / Subjuntiboa (Nor 3. singularra)

Apuntatzera noia, ahaztu ez	DAKIDAN	(Hori neri)
Apuntatu egik hori, ahaztu ez	DAKIXAN	(Hori hiri, mutilla)
Apuntatu egin hori, ahaztu ez	DAKIÑAN	(Hori hiri, neska)
Apuntatu dagixela, ahaztu ez	DAKIXON	(hori hari)
Apuntatu dagigun, ahaztu ez	DAKIGUN	(Hori guri)
Apuntatu egizu, ahaztu ez	DAKIZUN	(Hori zuri)
Apuntatu egizue, ahaztu ez	DAKIZUEN	(Hori zuei)
Apuntatu dagixela, ahaztu ez	DAKIXUEN	(Hori harei)

NOR-NORK / Subjuntiboa (Nor 3. singularra)

Nik haura ikusi	DA(G)IDAN	<i>dezadan</i>	NE(G)IXEN	<i>nezan</i>
Hik (mutilla) haura ikusi	DA(G)IXAN	<i>dezaan</i>		
Hik (neskia) haura ikusi	DA(G)IÑAN	<i>dezanan</i>		
Harek haura ikusi	DA(G)IXEN	<i>dezan</i>	ZE(G)IXEN	<i>zezan</i>
Guk haura ikusi	DA(G)IGUN	<i>dezagun</i>		
Zuk haura ikusi	DA(G)IZUN	<i>dezazun</i>	ZE(G)IZUN	<i>zenezan</i>
Zuek haura ikusi	DA(G)IZUEN	<i>dezazuen</i>	ZE(G)IZUEN	<i>zenezaten</i>
Harek haura ikusi	DE(G)IXEN	<i>dezaten</i>	ZE(G)IXEN	<i>zezaten</i>

NOR-NORI-NORK / Subjuntiboa (Nor 3. singularra)

Nik hari oratu	DA(G)IXODAN	<i>diezaiodan</i>
Hik (mutilla) hari oratu	DA(G)IXUAN	<i>diezaioan</i>
Hik (neskia) hari oratu	DA(G)IXONAN	<i>diezaionan</i>
Harek hari oratu	DA(G)IXON	<i>diezaion</i>
Guk hari oratu	DA(G)IXOGUN	<i>diezaiozun</i>
Zuk hari oratu	DA(G)IXOZUN	<i>diezaiozuen</i>
Zuek hari oratu	DA(G)IXOZUEN	<i>diezaiozuen</i>
Harek hari oratu	DA(G)IXUEN	<i>diezaiozen</i>

NOR / Agintera

NI	
HI	hadi
HAURA	bedi/de(d)illa
GU	
ZU	zaitte
ZUEK	zaittezte
HAREK	daittezela

NOR-NORI / Agintera

	NERI	HARI	GURI	HAREI
HI (g)	hakit	hakixo	hakigu	hakixue
HI (e)	hakit	hakixo	hakigu	hakixue

NOR-NORK / Agintera

	HIK (g)	HIK (e)	ZUK	ZUEK
NI	na(g)ik	na(g)in	na(g)izu	na(g)izue
HAURA	e(g)ik	e(g)in	e(g)izu	e(g)izue
HAREK	e(g)izak	e(g)izan	e(g)izu	e(g)izu

NOR-NORI-NORK / Agintera

	NERI	HIRI (g)	HIRI (e)	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAREI
NIK								
HIK (g)	e(g)idak			e(g)ixok	e(g)iguk			e(g)ixuek
HIK (e)	e(g)idan			e(g)ixon	e(g)igun			e(g)ixone
HAREK								
GUK								
ZUK	e(g)idazu			e(g)ixozu	e(g)iguzu			e(g)ixozu
ZUEK	e(g)idazue			e(g)ixozue	e(g)iguzue			e(g)ixozue
HAREK								

Parentesi arteko hizkixak ez dira esaten.

JOAN**Oraina**

NI	noia <i>najoiak najoian</i>
HI	hoia
HAURA	doia <i>joiak joian</i>
GU	goiaz <i>goiazek goianaz</i>
ZU	zoiaz
ZUEK	zoiazte
HAREK	doiaz <i>joiazak joianaz</i>

Lehena

NI	nindoian <i>najoiak najoianan</i>
HI	hindoian(an)
HAURA	zoian <i>joian joianan</i>
GU	giñoiazan <i>giñoiaztan giñoiazenan</i>
ZU	ziñoiazan
ZUEK	ziñoiazten
HAREK	zoiazan <i>joiazan joiazenan</i>

Baldintza

NI	banindoia <i>banindoia banindoia</i>
HI	bahindoia
HAURA	balijoia <i>balijoia balijoia</i>
GU	bagindoiaz <i>bagindoiaz bagindoiaz</i>
ZU	bazindoiaz
ZUEK	bazindoiazte
HAREK	balijoiaz <i>balijoiaz balijoiaz</i>

ETORRI**Oraina**

NI	nator <i>najatok najaton</i>
HI	hator
HAURA	dator <i>jatok jaton</i>
GU	gatoz <i>gatozek gatozen</i>
ZU	zatoz
ZUEK	zatozte
HAREK	datoz <i>jatozek jatozen</i>

Lehena

NI	nentorren <i>najatuan najatonan</i>
HI	hentorren
HAURA	zetorren <i>jetuan jatonan</i>
GU	gentozen <i>gentoztan gentoztanan</i>
ZU	zentozen
ZUEK	zentozten
HAREK	zetozen <i>jetoztan jetoztanan</i>

Baldintza

NI	banentor <i>banetor banetor</i>
HI	bahe(n)tor
HAURA	baletor <i>baletor baletor</i>
GU	bagentoz <i>bagentoz bagentoz</i>
ZU	bazentoz
ZUEK	bazentozte
HAREK	baletoz <i>baletoz baletoz</i>

IBILI**Oraina**

NI	nabil <i>najabik najabin</i>
HI	habil
HAURA	dabil <i>jabik jabin</i>
GU	gabitz <i>gabizek gabizan</i>
ZU	zabitz
ZUEK	zabizte
HAREK	dabitz <i>jabizek jabizan</i>

Lehena

NI	nenbillen <i>najabillan najabiñan</i>
HI	hebillen(na)n
HAURA	zebillen <i>jebillan jabiñan</i>
GU	gebizen <i>genbitzan genbitzanan</i>
ZU	zebizen
ZUEK	zebitzen
HAREK	zebizen <i>jebiztan jebiztanan</i>

Baldintza

NI	banenbil <i>banenbil banenbil</i>
HI	bahebil
HAURA	balebil <i>balebil balebil</i>
GU	bagenbitz <i>bagenbitz bagenbitz</i>
ZU	bazenbitz
ZUEK	bazenbizte
HAREK	balebitz <i>balebitz balebitz</i>

EUKI**Oraina**

NIK	daukat <i>jaukat jaukanat</i>
HIK	daukak/n
HAREK	dauka <i>jaukak jaukan</i>
GUK	dakagu <i>jaukagu jaukanagu</i>
ZUK	daukazu
ZUEK	daukazue
HAREK	dauke <i>jaukak jaukan</i>

Lehena

NIK	neukan <i>najaukan najaukanan</i>
HIK	heukan(an)
HAREK	zeukan <i>jeukan jeukanan</i>
GUK	geukan <i>geukan geukanan</i>
ZUK	zeukan
ZUEK	zeunken
HAREK	zeuken <i>jeuken jeukanen</i>

Baldintza

NIK	baneuka
HIK	baheuka
HAREK	baleuka
GUK	bageunka
ZUK	bazeunka
ZUEK	bazeunke
HAREK	baleuke

JAKIN**Oraina**

NIK	dakit <i>jakixat jakiñat</i>
HIK	dakik/n
HAREK	daki <i>jakik jakiñ</i>
GUK	dakigu <i>jakixau jakiñau</i>
ZUK	dakizu
ZUEK	dakizue
HAREK	dakixe <i>jakixek jakiñe</i>

Lehena

NIK	nekixen <i>najakixan najakiñan</i>
HIK	hekixen (1)
HAREK	zekixen <i>jekixan jekiñan</i>
GUK	genkixen (2) <i>genkixen genkiñan</i>
ZUK	zenkixen
ZUEK	zenkizuen
HAREK	zekixen <i>jekixen jekiñen</i>

Baldintza

NIK	baneki
HIK	baheki
HAREK	baleki
GUK	bagenki
ZUK	bazenki
ZUEK	bazenkizue
HAREK	balekixe

(1) hekiñan be bai
(2) genkigun

EGON**Oraina**

NI	nago <i>najaok najaon</i>
HI	hago
HAURA	dago <i>jaok jaon</i>
GU	gare <i>garek garen</i>
ZU	zare
ZUEK	zarete
HAREK	dare <i>jarek jaren</i>

Lehena

NI	nenguan <i>najauan najaonan</i>
HI	henguan (1)
HAURA	zeuan <i>jeuan jaonan</i>
GU	genden <i>gendeztan gendeztanan</i>
ZU	zenden
ZUEK	zendeten
HAREK	zeren <i>jeztan jeztanan</i>

(1) henganan

Baldintza

NI	banengo <i>banengo banego</i>
HI	bahengo
HAURA	balego <i>balego balego</i>
GU	bagende <i>bagende bagende</i>
ZU	bazende
ZUEK	bazendete
HAREK	balere <i>balere balere</i>

EKARRI**Oraina**

NIK	dakart <i>jakart jakarnat</i>
HIK	dakark/n
HAREK	dakar <i>jakark jakarn</i>
GUK	dakargu <i>jakarragu jakarranagu</i>
ZUK	dakarzu
ZUEK	dakarzue
HAREK	dakarre <i>jakarrek jakarrane</i>

Lehena

NIK	nekarren <i>najakarran najakarnan</i>
HIK	hekarra(na)n
HAREK	zekarren <i>jekarran jekarnan</i>
GUK	genkarren <i>genkarren genkarrenan</i>
ZUK	zenkarren
ZUEK	zenkarren
HAREK	zekarren <i>jekarren jekarnen</i>

Baldintza

NIK	banekar
HIK	bahekar
HAREK	balekar
GUK	bagenkar
ZUK	bazekar
ZUEK	bazekarre
HAREK	balekarre

ERUAN**Oraina**

NIK	daroiat <i>jaroiat jarioianat</i>
HIK	daroiak/n
HAREK	daroiak <i>jarioiak jarioian</i>
GUK	daroiagu <i>jarioiagu jarioianagu</i>
ZUK	daroiazu
ZUEK	daroiazue
HAREK	daroiak <i>jarioiek jarioien</i>

Lehena

NIK	neroian <i>najarioian najarioianan</i>
HIK	heroia(na)n
HAREK	zeroian <i>jeroian jeroianan</i>
GUK	zeroiagun <i>geroian geroianan</i>
ZUK	zeroiazun
ZUEK	zeroiazuen
HAREK	zeroien <i>jeroien jeroianen</i>

Baldintza

NIK	baneroia
HIK	baheroia
HAREK	baleroia
GUK	bageneroia
ZUK	bazeneroia
ZUEK	bazeneroie
HAREK	baleroie

JARDUN**Oraina**

NIK	dihardut <i>jiharduat jihardunat</i>
HIK	diharduk/n
HAREK	dihardu <i>jiharduk jihardun</i>
GUK	dihardugu <i>jiharduau jihardunau</i>
ZUK	diharduzu
ZUEK	diharduzue
HAREK	dihardue <i>jiharduek jihardune</i>

Lehena

NIK	niharduan <i>najiharduan najihardunan</i>
HIK	hiardu(n)an
HAREK	ziharduan <i>jiharduan jihardunan</i>
GUK	geniarduan
ZUK	zeniharduan
ZUEK	zeniharduen
HAREK	ziharduen <i>jiharduen jihardunen</i>

Baldintza

NIK	banihardu
HIK	bahiardu
HAREK	balihardu
GUK	bagenihardu
ZUK	bazenihardu
ZUEK	bazenihardue
HAREK	balihardue

ERABILI**Oraina**

NIK	darabilt <i>jarabillat</i> <i>jarabiñat</i>
HIK	darabilk/n
HAREK	darabil <i>jarabilk</i> <i>jarabin</i>
GUK	darabilgu <i>jarabillagu</i> <i>jarabiñagu</i>
ZUK	darabilzu
ZUEK	darabilzue
HAREK	darabile <i>jarabillek</i> <i>jarabiñe</i>

Lehena

NIK	nerabillen <i>najarabillan</i> <i>najarabiñan</i>
HIK	herabillan*
HAREK	zerabillen <i>jerabillan</i> <i>jerabiñan</i>
GUK	zerabigun
ZUK	zerabizun
ZUEK	zerabizuen
HAREK	zerabillen <i>jerabillen</i> <i>jerabiñen</i>

(*) *herabiñan* andrazkue-
dako.

Baldintza

NIK	banerabil
HIK	baherabil
HAREK	balerabil
GUK	
ZUK	bazerabizu
ZUEK	bazerabizue
HAREK	balerabille

ESAN (*iño)**Oraina**

NIK	diñot <i>jjiñuat</i> <i>jiñonat</i>
HIK	diñok/n
HAREK	diño <i>jiñok</i> <i>jiñon</i>
GUK	diñogu <i>jjiñuau</i> <i>jiñonau</i>
ZUK	diñozu
ZUEK	diñozue
HAREK	diñue <i>jiñuek</i> <i>jiñone</i>

Lehena

NIK	niñuan <i>niñuan</i> <i>niñunan</i>
HIK	hiñuan*
HAREK	ziñuan <i>jiñuan</i> <i>jiñonan</i>
GUK	
ZUK	ziñuzun
ZUEK	ziñuzuen
HAREK	ziñuen <i>jiñuen</i> <i>jiñonen</i>

(*) *hiñonan* andrazkue-
dako.